



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./Nº Expediente: 2022IGOBO020**

**Gaia/Asunto: 2022/11/15 Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local 15/11/22**

**Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko azaroaren 15ean  
eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2022ko azaroaren 15eko 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

### **EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

### **Elkarrekin Errenteria**

- José Manuel Ferradás Freijo

Ez dira etorri, baina ezinetorria adierazi dute, Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi (EH Bildu Orereta/Errenteria) eta Maite Gartzia Ontivero (Elkarrekin Errenteria).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkari orokorra.

**1. 2022ko urriaren 18ko ohiko bilkurari dagokion  
akta irakurri, eta egoki bada, onartzea.  
(2022IGOBO019)**

Oharrak gabe onartu da.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno  
Local celebrada el día 15 de noviembre de 2022.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 15 de noviembre de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejalas y Concejales:

### **EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

### **Elkarrekin Errenteria**

- José Manuel Ferradás Freijo

No asisten excusando su inasistencia, Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi (EH Bildu Orereta/Errenteria) y Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Errenteria).

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta  
correspondiente a la sesión ordinaria del 18 de  
octubre de 2022. (2022IGOBO019)**

Se aprueba sin observación alguna.



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

### 2. Eguzkizaleak S.R. Elkartea Udal Elkarte- Erregistroan inskribatzea. (2022IIGE0012)

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal erregistroa arautzen duen erreglamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribatua egoteko baldintzak bete behar dira:

1.- Errenteriako udalerrian lankidetza-lanak egitea.

2.- Eusko Jaurlaritzen Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribatua egotea.

3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

2022ko urriaren 5ean Jose Mari Aramburu Puyk, "Eguzkizaleak S.R. Elkarte" ordezkatz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera, erreglamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen.

Ingurumeneko Goi Mailako Teknikariaren 2022ko urriaren 24ko txostena ikusi da. Bertan adierazten denez, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa bat dator eta elkartea horren inskripzioaren aldeko txostena egiten du.

Ingurumeneko delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Ingurumeneko aholkularei juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

### 2. Inscripción de la Asociación Recreativa Eguzkizaleak en el Registro Municipal de Asociaciones. (2022IIGE0012)

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria

2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

Con fecha 5 de octubre de 2022, Jose Mari Aramburu Puy en representación de "Asociación Recreativa Eguzkizaleak", solicita ser inscrita en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento.

Visto el informe del Técnico Superior de Medio Ambiente, de fecha 24 de octubre de 2022, en el que se indica que la documentación presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Medio Ambiente y la conformidad dada por la asesora jurídica de Medio Ambiente a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

Por todo ello en el ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ERABAKI DU

1.- “Eguzkizaleak S.R. Elkartea” Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.-Honan berri interesatuari eta kontuhartzaitzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

### ACUERDA

1.- Proceder a la inscripción de la asociación “Asociación Recreativa Eguzkizaleak” en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.

### 3. Madalena kaleko 27. zentzuan dagoen eraikinari. Joxepa Antoni Aranberri Anitzenea izendatzea. (2022EPOL0002)

### 3. Denominar al edificio, sito en la calle Madalena 27, .Joxepa Antoni Aranberri Anitzenea. (2022EPOL0002)

### AURREKARIAK

Madalena kalea 27an kokaleku duen Udal eraikinak izaera eta funtzi berriak izango dituen honetan, Hizkuntza eta berdintasun politiken zinegotzi naizen aldetik, eraikinaren ondorengo izendapen proposamena luzatzen diot tokiko gobernu batzordeari:

### ANTECEDENTES

Como concejal de Política Lingüística y de Igualdad, propongo a la Junta de Gobierno Local la siguiente denominación del edificio municipal, sito en la calle Madalena 27, que tendrá un carácter y funciones nuevas:

### Joxepa Antoni Aranberri Anitzenea

Izendapen honekiko proposamena eraikina kokaleku izango duten eragileekin (Badalab, SOS arrazakeria, Lau Haizetara eta Xepelar bertso eskola) landu eta adostutakoa da, baita Berdintasun Kontseiluan partekatutakoa ere. Ondorengoak dira horretarako arrazoi nagusiak:

La propuesta para esta denominación es una propuesta elaborada y consensuada con los agentes que van a establecerse en el edificio (Oab, SOS racismo, Lau Haizetara y Xepelar bertso eskola), así como compartida en el Consejo de Igualdad. Las principales razones para ello son las siguientes:

Lehenik eta behin, eraikinak herriko hizkuntzen topagune izaera hartu nahi du, herriaren bizkitetza lingüístico ekarpena eginaz eta euskararen normalizazio politikoan eragin asmoz. Joxepa Antoni

En primer lugar, el edificio pretende adquirir el carácter de punto de encuentro de las lenguas del pueblo, aportando a la convivencia lingüística del municipio e incidiendo en la normalización política del



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

bertsolaria izan zen, euskararen eragile eta euskalgintzan erreferente. Zentzu horretan, bat egiten du eraikinaren izaerarekin.

Era berean, euskalgintzan erreferente izateaz harago, emakume gisara ere erreferente izan genuen. Plaza publikoa gizonek okupatzen zuten garaietan, Joxepa Antonik jakin zuen bertsoen bidez herriko egoeraren, gatazka sozialen eta garaiko emakumeen errealitatearen inguruan bere iritzia plazaratzen. Kasu askotan, agertoki publikoan bere iritzia eman izana bere kontra eterri arren, jakin badakigu hil arte jardun zuela jendartean onartzen ez ziren aldarriak lau haizetara zabaltzen. Zentzu horretan, emakume erreferentetzat aitortu zuen Mariasun Landa sarketak 2011. urtean, bere biografia jasotzen zuen lana sarituz.

Joxepa Antoniren aitortzak eta orio menak, beraz, ekarpena egiten dio hizkuntza politiketan azken urteotan Errenteriako Udalak hartutako norabideari; baita, berdintasun planaren baitan azken urteotan herriko emakumeen memoria ikustarazteko egin den ibilbideari ere.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

2019ko uztailaren 1eko Dekretua, alkateak Tokiko Gobernu Batzarrari eskumenak eskuordetzen dizkiona. Horren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio kaleen, plazen, eraikinen eta gainerako udal-ondasun higiezinen izenak onartzea.

Udal Hizkuntza Politikako teknikariak eta berdintasun-teknikariak batera 2022ko urriaren 27an egindako txostena aztertu da.

Udal Hizkuntza Politikarako zinegotzi delegatuak 2022ko azaroaren 9an egindako erabaki-proposamena aztertu da.

euskera. Joxepa Antoni fue bertsolari, agente del euskera y referente en el mundo del euskera. En este sentido, comparte el carácter del edificio

Asimismo, más allá de ser un referente en el mundo del euskera, también lo fue como mujer. En los tiempos en que la plaza pública estaba ocupada por hombres, Joxepa Antoni supo hacer pública su opinión a través de los bertsos sobre la situación del pueblo, los conflictos sociales y la realidad de las mujeres de la época. En muchos casos, a pesar de que el hecho de haber expresado su opinión en el escenario público ha venido en su contra, sabemos que, hasta su muerte, actuó difundiendo a los cuatro vientos proclamas que no eran aceptadas entre la multitud. En este sentido, el premio Mariasun Landa de 2011 la reconoció como una mujer referente, premiando el trabajo que recogía su biografía.

El reconocimiento y memoria de Joxepa Antoni aporta, por tanto, a las políticas lingüísticas el rumbo adoptado en los últimos años por el Ayuntamiento de Errenteria, así como el recorrido realizado en los últimos años dentro del plan de igualdad para visibilizar la memoria de las mujeres de la localidad

### LEGISLACIÓN APPLICABLE

Decreto del 1 de julio de 2019 de delegación de competencias de la alcaldesa en la Junta de Gobierno Local de acuerdo con el cual corresponde a la Junta de Gobierno Local la aprobación de la denominación de las calles, plazas, edificios y demás bienes inmuebles municipales.

Visto el informe conjunto del técnico de Política Lingüística Municipal y de la Técnica de igualdad de fecha 27 de octubre de 2022.

Vista la propuesta de acuerdo de la Delegada de Política Lingüística Municipal de fecha 9 de noviembre de 2022.



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldesa de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

#### ERABAKI DU

1. Madalena kaleko 27. zenbakian dagoen eraikinari.  
**Joxepa Antoni Aranberri Anitzenea** izendatzea.
2. Kontratacio eta Ondare sailari jakinaraztea.

#### ACUERDA

1. Denominar al edificio, sito en la calle Madalena 27, .**Joxepa Antoni Aranberri Anitzenea**.
2. Notificar al departamento de Contratacion y patrimonio.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 2022ko azaroaren 15a

Errenteria, 15 de noviembre de 2022

Idazkari orokorra / Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU4df5dcb1-1ef7-45b7-a2fa-ff703258fe41**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiazatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## **Sinaduren laburpena / Resumen de firmas**

**Titulua / Título:**

2022IGOBO0020-AKTA/ACTA (ERREENTERIAKO UDALA)